

## XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 5126

*212/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa sortzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuaren 11.1.a) artikuluari jarraikiz, bere egina dauka ingurumena eta ekologia babesteko eskumena, hain zuzen ere, legea garatzea eta gai horretan estatuko oinarrizko legedia betearaztea.

Eskumen hori erabiltzeko promulgatu zen otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra, EAEko ingurumena babesteari buruzkoa; bertako 106. artikuluan administrazio publikoei ahalmena ematen zaie behar bezala egiaztatutako erakunde publiko edo pribatuei zaintza- eta egiaztapen-lan batzuk emateko.

Bestalde, azaroaren 23ko 17/2009 Legeak, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoak, zerbitzuak eskura egoteko behar diren xedapen eta printzipioak ezartzea du helburu, prozedurak sinplifikatuz eta zerbitzuen kalitate ona sustatuz. Lege horrek xedatzen du administrazio publikoek berraztertu egin behar dituztela zerbitzuak emateko prozedurak eta izapideak, haiek sinplifikatzea helburu hartuta.

Hori dela eta, beharrezkoa da berrantolaketa funtzional berria, erantzunkidetasun- eta bateratze-printzipio publiko/pribatuak ezartzera bideratua; horrek eredu-aldaketa eragingo du sortzen diren espedienteen kudeaketan, ingurumeneko administrazio-prozedura bakoitzean, administrazioak nahiz sektore pribatuak parte hartzen duenean.

Helburu horiek lortzeko, EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundeak arautuko dituen eta bete beharreko funtzioak eta baldintzak ezarriko dituen Dekretu hau onartzea sustatuko da, eta dagokion administrazio-erregistroa sortuko da.

Era horretan, ingurumen-prozeduren giltzarri izango dira ILEak eta, araudi honen barruan, jarduerak egiaztatu, baliozkotu eta kontrolatu ahalko dituzte.

Dekretu berri honek beharrezko baldintzak ezartzen ditu enpresa pribatuek nahiko bermearekin eta fidagarritasunarekin jardun ahal dezaten ingurumena babesteko jardueretan; horrela, arinagoak eta eraginkorragoak izango dira administrazioko ingurumen-prozeduren tramitazioak eta ebazpenak, bai eta ingurumenaren babesa ere.

Dekretuak aurreikusita dauka EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen administrazio-erregistro berria sortzea, eta bertan argitaratuko dira erakundearen izena, maila eta jardueraren nondik norakoa, baimenaren iraunaldia, eta antolaketa eta teknika mailako ezaugarriak.

Bestalde, xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe utziko du, 2013ko uztailaren 1etik aurrera, 259/1998 Dekretua, irailaren 29koa, erabilitako olioaren kudeaketa EAEn arautzen duena, estatuan araututakoa nahikoa eta egokia delakoan erabilitako olio industrialak behar bezala kudeatzeko.

Azkenik, azken xedapenetatik lehenak, bigarrenak, hirugarrenak eta laugarrenak aldatu egin dituzte 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, airea kutsa dezaketen jarduerak dituzten instalazioak arautzen dituen; 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispene-

hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena; 629/2009 Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen duena; eta 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeako sistema finkatzen duena, eta erakunde horiek egin beharreko ikerketen edukiak zer-nolakoak izango diren zehazten duena. Horren guztiaren helburuak dira ILEek izen bera izatea arlo guztietan, erakunde horiek izatea hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko azken txostenak egiten dituztenak, ILEen eskumena ingurumen arloko sailarena izatea, eta erregistro bakar batean biltzea bai ILEak bai lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko erakundeak.

Ondorioz, manuzko txostenak eginda, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) araubide juridikoa ezartzea da, ingurumen-arloko araudian erregulatutako administrazio-prozeduretarako.

2.– Dekretuaren xedea da, era berean, EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen administrazio-erregistroa sortzea eta arautzea.

##### 2. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honetan xedatutako ondorioetarako, hona hemen nola ulertu behar diren termino hauek:

a) Jarduera: jarduera industrial bat edo gehiago garatzen diren unitate tekniko finkoa; halaber, leku horretako jarduerekin zuzenean lotutako eta isurietan nahiz kutsaduran eragina izan dezaketen jarduerak egiteko unitateak.

b) Jarduerak egiaztatzea: ingurumen-eskumenak dituen sailak ILE bati onartutako ahalmena ingurumen-alderdi baten edo gehiagoren ebaluazio-prozesu bat egiteko, baimen, izapide, lizentzia edo legediari jarraituz, ikuskapen-, neurketa- eta saio-tresnen beharrik gabe.

c) Baliozkotzea: ingurumen-eskumenak dituen sailak ILE bati onartutako ahalmena, baieztan dezan egindako egiaztapena bat datorrela ezarritako baldintzekin.

d) Jardueren kontrola: ingurumen-eskumenak dituen sailak ILE bati onartutako ahalmena, ingurumen-baldintzak baieztan dituzan jarduera bati ezarritako ingurumen-baimen batean, lizentzia batean, edo ingurumen-araudian bertan, ikuskapen-, neurketa- eta saio-tresnak behar direlarik, laginak hartzeko tresnak barne.

e) Jarduerak ikuskatzea: ingurumen-eskumenak dituen sailak ingurumen-araudia betetzen den ala ez ikertzeko eta ebaluatzeko duen ahalmena; lan hori egiten duten langileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira.

f) Ingurumen-egiaztapena: erakunde Egiaztatzaile batek edo administrazio-organo batek ILE bati emandako eskumena arauan edo arauetan jasotako jarduerak egiteko.

g) UNE-EN ISO/IEC 17020 araua: egokitasuna ebaluatzen du eta erakunde ikuskatzaileen funtzionamendurako irizpide nagusiak finkatzen ditu.

h) UNE-EN ISO/IEC 17025 araua: saiakuntza- eta kalibratze-laborategien gaitasun teknikorako baldintza nagusiak finkatzen ditu.

i) UNE-EN 45011 araua: produktu bat egiaztatzen duten erakundeek bete beharreko irizpide nagusiak finkatzen ditu.

j) Gaitasun teknikoa: prestakuntzaren, esperientzia orokorraren eta esperientzia espezifikokoaren aldetik ILE batek bete behar dituen baldintzak, jarduera zehatz bat egin ahal izateko. Jarduera bakoitzaren gaitasun teknikoa finkaturik dago Dekretu honen I. eranskinean, 7. eta 8. artikuluen arabera.

k) Langileen barne-prestakuntza: ILE batek langile tekniko bakoitzari barne-prestakuntza eman ahal izateko ezaugarriak, 7. eta 8. artikuluetan adierazitako lanetarako, Dekretu honen II. eranskineko baldintzen arabera.

l) Ingurumen Lankidetzako Erakundea (ILE): bere izaera juridikoa duen erakundea, publikoa nahiz pribatua, EAEko ingurumen-eskumenak dituen Sailaren lankide dena, jarduerak egiaztatu, baliozkotu eta kontrola ditzan.

3. artikulua.– EAEko ingurumen-eskumenak dituen Sailaren betekizunak.

EAEko ingurumen-eskumenak dituen sailak betekizun hauek ditu:

a) ILEen izena jasotzea Erregistro berrian.

b) ILEak zaintzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

c) Zehatzeko eskumenaz baliatzea, Dekretu honi jarraikiz.

## II. KAPITULUA

### INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEEN JARDUEREN NONDIK NORAKOA

4. artikulua.– ILEen sailkapena eta lankidetzeta-mailak.

1.– ILEak Ingurumena Baliozkotzeko Erakundeak ala Ingurumena Kontrolatzeko Erakundeak izan daitezke, ingurumen-eskumenak dituen Sailarekin duten lankidetzaren arabera.

2.– Administrazioarekiko lankidetzeta-maila hauek daude:

2.a.– I. maila: ingurumena Baliozkotzeko Erakundeak. Erakunde horiek jarduera hauek egingo dituzte:

2.a.1.– Ingurumen-baimenak eskatzeko, baimenak berritzeko, diru-laguntzen izapideak egiteko eta jarduerak egiaztatzeko baldintzak eta beharrezko datuak baliozkotzea.

2.a.2.– Jarduera egiten den lekuan egiaztatzea ea tresnak edota instalazioak bat datozen baimenetako, administrazio-izapideetako edo ingurumen-araudiko baldintzekin.

Erakunde horiek baimendu beharreko proiektuen baitan egingo dituzte beren jarduerak, sustatzaileak aurrez eskaera eginda (proiektu horren izenean eskatzen da baimena ingurumen-

prozedurari hasiera emateko); halaber, egiaztatuko dute ea betetzen diren baimen edo jakinarazpen baten, edo ingurumen-legediaren baldintzak. Administrazioak eskatuta ere egingo dituzte jarduerak.

2.b.– II. maila: Ingurumena Kontrolatzeko Erakundeak. Laginak hartuz eta neurketak eta analisiak eginez ebaluatuko dute jardueran zehar egin beharreko hainbat funtzionamendu-kontrol eta -egiaztapen.

Erakunde horiek beren jarduerak egingo dituzte, aurrez eskaera egin badu instalazioaren edo jardueraren titularrak edo administrazioak, arau honetan aipatutako ingurumen-prozeduren bidetik.

3.– ILEek I. mailan, II. mailan edo bi mailetan jardun ahal izango dute, jakinarazpenaren nondik norakoaren arabera, arau honen administrazio-prozedurak jarraituz.

5. artikulua.– ILEen betekizunak.

1.– Ingurumena Baliozkotzeko Erakundeek eginkizun hauek izan ditzakete:

a) Administrazio-prozedura bakoitza izapidetzeko behar diren agiriak eman diren egiaztatzea eta baliozkotzea.

b) Jarduerari eskatutako dokumentu-baldintzak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea, eta egiaztapen horren ardura bere gain hartzea, pertsona sustatzailearekin modu erantzunkidean.

c) Egiaztatzea eta baliozkotzea ea instalazioak bat datozen baimentze-prozeduran edo erantzukizunpeko jakinarazpenean edo deklarazioan aurkeztutako agiriekin.

d) Jarduerak edo instalazioak martxan jartzeko neurri zuzentzaileak hartu eta abiarazi direla baliozkotzen duten txostenak egitea, bai eta haien ixteari buruzkoak ere.

e) Ingurumen-eskumenak dituen sailari laguntzea, sailak berak eskatzen dionean, ingurumen-egiaztapen partzialak edo osoak egiten; eta dagokion txostena idaztea.

f) Jarduera ekonomikoen agiriak egiaztatzea eta horien jarraipena egitea diru-laguntzak izapidetzean. Diruz lagundutako tresnak eta instalazioak abian jarri direla frogatzeko ikustaldiak egitea.

g) Ingurumen-zaintzako programen jarraipen-txostenak agiri bidez egiaztatzea eta baliozkotzea, barne direlarik jarduerak ezarritako eta ingurumen-eskumenak dituen sailak onartutako autokontrol-sistemak.

h) Ingurumen-eskumenak dituen sailak berak, edo sail horrentzat, eskatutako beste edozein jarduera egitea, ingurumen-araudiaren, ingurumen-baimenen edo diru-laguntzen eremuan; edo ingurumen-inbertsioak baliozkotzea, ikuskatze-, neurketa- eta saiakuntza-tresnarik behar ez denean.

2.– Ingurumena Kontrolatzeko Erakundeek ikuskatze-, neurketa- eta saiakuntza-tresnak eskatzen dituzten eginkizun hauek izan ditzakete:

a) Laginak hartzea, analisiak egitea, airera egiten diren igorpenen parametroak egiaztatzea, bai eta airearen kalitatea, akustikoa eta urena, hondakinena, lurrena, jalkinena, bizidunena, edozein jatorriko isurketena eta efluenteena ere, kasu bakoitzeko araudia betez.

b) Aldizkako egiaztapenak eta kontrolak egitea; isurketak eta airera egindako igorpenak identifikatzeko eta ezaugarriak zehazteko neurketak eta lanak egitea; kutsatzaileak izan

daitezkeen jardueren neurketak egitea, besteak beste, zarata- eta bibrazio-mailenak, isurketenak eta hondakinenak, arauak edo baimena betetzen duten ebaluatzeko.

c) Ingurumen-eskumenak dituen sailari laguntzea ikuskatze-lanetan, sailak berak eskatzen dioenean, ingurumen-kontrolak eginez.

d) Ingurumen-eskumenak dituen sailak berak eskatutako, edo sail horrentzako beste edozein jarduera egitea, ikuskatze-, neurketa- eta saiakuntza-tresnak behar direnean.

3.– ILEek kasuan kasuko arauak betez egingo dituzte jarduerak, eta erreferentzia gisa hartuko dituzte ingurumen-eskumenak dituen sailaren agiriak, gidak, jarraibideak eta abar. Agiri horiek ILEen esku egongo dira sail horren web orrian.

6. artikulua.– Ingurumen Lankidetzako Erakundeen jarduera-eskaerak.

1.– Ingurumen-arloko hainbat administrazio-prozeduraren inguruan ILEek egin beharreko jarduerak oinarritzen dira bai jardueren sustatzaileek egindako eskaeretan bai ingurumen-eskumenak dituen sailak eskatutako laguntza teknikorako eskaeretan.

2.– Pertsona sustatzaileak nahitaez erabili behar ditu ILEaren zerbitzuak, baldin eta Dekretu honen 7. artikuluko prozedura baten izapideren bat egiteko asmoa duenean, baina borondatezkoa izango da ingurumen-ebaluazio estrategikoan, hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sorrera jakinaraztean, eta hondakin bihurtutako produktuaren sortzailearen erantzukizun hedaturako sistema kolektiboen baimenean.

Dena dela, hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sorrera jakinarazteko orduan, eta arrazoiak daudenean, ingurumen-eskumenak dituen organoak sustatzaileari agindu ahal dio ILE batek parte hartzea.

3.– Ingurumen-eskumenak dituen sailak ILEen zerbitzuak erabil ditzake bere jarduera-esparruko administrazio-prozedurak edo beste jarduera batzuk egiteko.

7. artikulua.– ILEen jardueraren barruko ingurumen-prozedurak, pertsona sustatzaileak eskaturik.

Sustatzaileak eskatutako ILEen jarduerak egingo dira ingurumen-prozeduren baitan, eta hark eskatutako jarduera-eremuen baitan, ondoren aipatuak. Era berean, prozedura horien jarduera-eremuak bat etorri behar du erakundearen jarduera-mailarekin, Erregistroan duen nondik norakoa zehazteko:

1.– Ingurumen-baimen bateratua emateko prozedurari dagokionez:

1.1.– Ingurumen-baimen bateratuaren eskaeran, agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea, bai instalazio berrien edo lehendik daudenen eskarietan, bai ingurumen-arloan eskumenak dituen sailak funtsezkotzat jotako aldaketetan, ingurumen-eraginaren deklarazioetan barne (ILE I. maila).

1.2.– Jarduera gauzatu bitartean, ingurumen-baimen bateratuan zehaztutako kontrolak egitea (ILE II. maila).

2.– Ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurei dagokionez:

2.1.– Proiektuen ingurumen-eragina ebaluatzeari dagokionez, ingurumen-eraginaren azterlana egiaztatzea eta baliozkotzea, batez ere, ea azterlana egokitzen den ingurumen-eskumenak dituen sailak aurrez ezarritako hedadurara eta xehetasun-mailara (ILE I. maila).

2.2.– Ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokionez, ingurumen-eskumenak dituen organoari bidali beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea; bereziki, ingurumen-iraunkortasunaren txostena bat etor dadila erreferentziatzeko agiriaren hedadurarekin eta xehetasun-mailarekin (ILE I. maila).

3.– Hondakinak baimentzeko eta jakinarazteko prozedurei dagokionez:

3.1.– Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kudeatzeko baimen-prozeduraren inguruan.

3.1.1.– Eskieran, aurkeztu beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.1.2.– Baimena berritzeko orduan, agiriak eta instalazioak egokiak diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.1.3.– Abian jartzeko orduan, baimenean ezarritako neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.1.4.– Jarduera gauzatu bitartean, baimenean ezarritako egiaztapenak, baliozkotzeak edo kontrolak egitea (ILE II. maila).

3.2.– Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen kudeaketako jakinarazpen-araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.3.– Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sorrerako jakinarazpen-araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.4.– Hondakin bihurtutako produktuaren sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema indibidualak aurrez jakinarazteko orduan, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.5.– Hondakin bihurtutako produktuaren sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboak baimentzeko araubideari dagokionez.

3.5.1.– Eskieran, aurkeztu beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.5.2.– Abian jartzeko orduan, baimenean ezarritako neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

3.5.3.– Jarduera gauzatu bitartean, baimenean ezarritako egiaztapenak, baliozkotzeak edo kontrolak egitea (ILE II. maila).

4.– Airearen kutsadura baimentzeko eta jakinarazteko prozedurei dagokionez:

4.1.– Aire kutsa dezakeen jarduera baimentzeko prozeduran, jarduerak iraun bitartean, baimenean ezarritako neurriak egiaztatzea, baliozkotzea eta kontrolatzea (ILE II. maila).

4.2.– Jakinarazpenaren araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE II. maila).

5.– Jarduera egitean isurketak baimentzeko prozedurari dagokionez, isurketa-baldintzak betetzen diren egiaztatzea, batez ere, isurketen ezaugarri kualitatiboak eta kuantitatiboak (ILE II. maila).

Esparru honen nondik norakoa matrize hauen arabera eskatuko da: hondakin-urak, ur kontinentalak, estuarioko eta itsasoko urak, jalkinak eta biota.

6.– Berotegi-gasen igorpenak baimentzeko eta baimendutako igorpenak aldatzeko eskaeretan (sarrera berriak edo murrizketa nabarmenak), lege-baldintzak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

7.– EBko etiketa ekologikoa emateko prozedurari dagokionez, produktu-kategoria edota zerbitzu bakoitzaren irizpide ekologikoak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea (ILE I. maila).

8.– Igorpen eta Iturri Kutsagarrien Erregistro Estatalari dagokionez, jarduerak emandako datuak egiaztatzea eta baliozkotzea.

9.– Ingurumen-araudiko beste edozein administrazio-prozedura, Dekretu honetan araututako erakundeen bidez jarduteko beharra dagoela ezartzen bada.

8. artikulua.– ILEen ingurumen-prozedurak, ingurumen-eskumenak dituen sailak eskaturik.

Ingurumen-eskumenak dituen sailak eskatutako zerbitzuak ikuskaritzan laguntzeko dira, eta honela zehazten dira, ILE bakoitzaren jarduera-mailaren arabera:

a) Hainbat jarduera-sektoretan diagnosiak egitea edota araudia betetzen dela egiaztatzea (ILE I. maila).

b) Aire, ura, hondakinak, lurzoruak edota zarataren kontrolak egitea. Administrazio hidraulikoari lagunduz, ingurune hartzailearentzat ingurumen-kalitatearen helburuak eta arauak betetzen diren egiaztatzea, eta uren egoeraren inguruko jarraipen-programak egitea (ILE II. maila).

9. artikulua.– Ingurumen Lankidetzako Erakundeen baldintzak.

1.– Aurreko artikuluetako prozeduretan jardutera doazen ILEek gaitasun teknikoaren baldintza hauek bete behar dituzte.

2.– I. mailako erakundeek Dekretu honen I. eranskineko prozedura eta jarduera-eremu bakoitzaren baldintzak bete behar dituzte, eta kudeaketa-prozedura hauek eduki behar dituzte:

a) Erakundearen kalitatea kudeatzeko eskuliburua.

b) Baliozkotze-jarduerak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzaren prozedura, II. eranskineko baldintzak kontuan hartuta.

c) Ez-adostasunak eta erreklamazioak kudeatzeko prozedura.

d) Ekintza zuzentzaileak eta prebentiboak abian jartzeko prozedura.

e) Egiaztatzeak eta baliozkotzeak egiteko prozedura orokorra.

f) Egindako jardueren kalitatearen barne-kontrolerako prozedura.

g) Barne-auditoriak egiteko prozedura.

h) Konfidentzialtasun-prozedura.

i) Independentzia-, inpartzialtasun- eta osotasun-prozedura.

j) Agiriak eta sortutako erregistroak kontrolatzeko prozedura.

Dena dela, erakunde batek baldin badu UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 edo UNE-EN 45011 araberako ingurumen-ziurtagiririk, edo haien ordezkari edo osagarri denik, ez ditu zertan eduki kudeaketa-prozedura horiek, salbu eta aurreko paragrafoko b) eta e) ataletakoak.



3.– II. mailako erakundeek Erakunde Egiatzatzaile batek emandako egiaztagiri bat eduki behar dute, UNE-EN ISO/IEC 17020 edo UNE-EN ISO/IEC 17025 arauetara jarraiki, edo haien ordezkari edo osagarri diren arauetara jarraiki, zein bere nondik norakoarekin.

Sektoreko araudiak ingurumen-kontrolak exijitzen baditu, eta ez badago horietarako egiaztatutako prozedurarik, ILEak ingurumen-eskumenak dituen Sailaren aurrean frogatu beharko du gaitasun tekniko nahikoa duela.

10. artikulua.– Jardueraren pertsona titularrak dituen betebeharrak eta eskubideak.

1.– Jardueraren titularra den pertsona fisikoak edo juridikoak betebeharrak hauek izango ditu:

a) Dekretu honetan araututako ILEek jardun dezaten eskatzea, hala agintzen duenean Dekretuak edo ingurumena babesteko dena delako arauak.

b) ILEek administrazioari ikuskatze-lanetan laguntzen diotenean, jarduera-gunerako sarrera posible egitea, eskatutako informazio garrantzitsua aurkeztea, ikuskapenerako beharrezko diren laginak eta neurketak hartzen laguntzea, eta beharrezko laguntza eta lankidetzaren ematea.

2.– Jardueraren titularra den pertsona fisikoak edo juridikoak eskubide hauek izango ditu:

a) ILEak egindako jarduera guztietan egotea.

b) Egiatzatze- eta kontrol-kasuetan, akta eskuratu ahal izatea eta beharrezko iruditzen zaizkion adierazpenak idatzi ahal izatea.

c) ILEetako langile teknikoaren nortasuna eta ILEaren nondik norakoa egiaztatzea ahal izatea.

d) Laginak hartzean, laginketaren xedea jakin ahal izatea eta, teknikoki posible bada, lagin biki bat jaso ahal izatea, beti ere, laginak hartzen hasi aurretik eskatzen bada.

11. artikulua.– Ingurumen Lankidetzako Erakundearen salbuespenezko erabilera.

Arlo zehatz baterako gaitasun tekniko eta ezagutza bereziak behar direnean, eta beste erakunde batzuen esparru izanik merkatuan ez daudenean, salbuespen moduan, ingurumen-eskumenak dituen sailak, behar bezala justifikatutako ebazpen bidez, ILE ez diren erakundeei eman ahal dizkie 7. eta 8. artikuluetan ezarritako jarduerak.

## II. KAPITULUA

### INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEEN ERREGISTROAN SARTZEKO PROZEDURA

#### 1. ATALA

### INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEAK

12. artikulua.– Jakinarazpen-araubidea.

1.– EAEko ingurumen-eskumenak dituen sailaren aurretiazko jakinarazpen-erregimenaren menpe geratzen da ILE gisa II. kapituluko jarduerak egitea.

2.– IKS eeM Sistemako teletramitazio-tresna bakarraren bidez egingo da jakinarazpena, Ingurumen Deklarazioaren Eskabidea izenarekin (e-DMA S), eta bertan adieraziko da eskatzen den jarduera-maila eta nondik norakoa, Dekretu honen 7. eta 8. artikuluei jarraiki.



3.– Aurretiazko jakinarazpenarekin batera joango dira agiri hauek:

a) Erakundearen sorrerako eratze-eskritura edo araua.

b) 9. artikuluko baldintzak betetzearen egiaztatzea.

c) Edukiz gero, UNE-EN ISO 9000, UNE-EN ISO 14000 eta abarren kudeaketa-sistemen ziurtagirien kopia.

4.– Dekretu honetan aipatzen diren, eta jarduera hauetarako EMAS erregistroan izena emanda dauden egiaztatze-, baliozkotze- eta kontrol-jardueretan aritzen diren enpresek Europar Legebiltzarreko (EE) 1221/2009 araudiaren eta 2009ko azaroaren 25eko Kontseiluaren arabera, EMAS ingurumen-kudeaketako eta -ikuskaritzako sistema batean borondatez parte hartzeari buruzkoa (indargabetu egiten ditu (EE) 761/2001 araudia, eta Batzordearen 2001/681/CE eta 2006/193/CE erabakiak), EMAS erregistroko inskripzioa eguneratuta izatea eta artikuluko honen 3. ataleko b) eta c) epigrafeak soilik egiaztatu beharko dituzte aurretiazko jakinarazpenarekin.

5.– Aurretiazko jakinarazpena aurkezteak baimena ematen du EAEko ILE gisa jarduteko, eta artikuluko honetan aipatzen diren agiriak eman dituzten titularrena baizik ez den ardurapean hasiko da jarduera hori.

6.– Aurretiazko jakinarazpenarekin batera doan edozein funtsezko daturen, adierazpenen edo agiriren zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez aipatzeak, edo ingurumen-eskumenak dituen sailaren aurrean ez aurkezteak, ILE gisa jardutea etengo du gertaera horiek ziurtatzen diren unetik bertatik, alde batera utzi gabe egon daitezkeen erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak.

7.– Halaber, EAEko ingurumen-eskumenak dituen sailaren ebazpenak erabaki dezake xede bereko prozedura berririk ez ekitea urte batean, gehienez.

13. artikulua.– Jakinarazpenak zuzentzea.

Jakinarazpenak beharrezko baldintzak betetzen ez dituen edo aurreko artikuluko arabera exijitu daitezkeen agiriak gehituta ez dituen edo erakunde eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio hutsegitea zuzentzeko edo nahitaezko agiriak gehitzeko, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 71. artikulua jarraituz; horrela egingo ezean eskaera ezeztatuko zaio, aurrez aipatutako legearen 42. artikuluko baldintzetan oinarritutako ebazpena emanda.

## 2. ATALA

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEEN ERREGISTROA

14. artikulua.– EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa.

1.– EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortuko da, eta bertan inskribatuko dira dekretu honetan erregulatutako hainbat erakunde.

Erregistro horrek izaera administratiboa du, ingurumen-eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailaren mende dago, eta Ingurumen Informazioaren Kudeaketa Integraleko Sistemaren integratutako da (IKS eeM sistema).

2.– Erregistroak Ingurumen Lankidetzako Erakundearen informazio hau jasoko du:

a) Erakundea identifikatzen duten datuak.

b) Jarduera-maila eta nondik norakoa.

c) Ingurumen-eskumenak dituen sailak zehaztutako beste edozein informazio.

3.– Ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bete beharko dute ingurumenean eragina duten EAEko instalazioen erregistroan bildutako datuek.

15. artikulua.– Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroan izen ematea.

Jakinarazpena agiriekin jaso eta beharrezko egiaztapenak eginda, ingurumen-eskumenak dituen sailak EAEko ILEen Erregistroan inskribatuko du erakunde eskatzailea, argitara ematea beste helbururik gabe.

#### IV. KAPITULUA

##### INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEEN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

16. artikulua.– Ingurumen Lankidetzako Erakundeen betebeharrak.

Honako hauek dira ILEen betebeharrak:

a) Dekretu honetan adierazitako eta aplikatu dakizkiokeen baldintza guztiak mantentzea eta betetzea.

b) Horretarako erregistratuta dauden egiaztatze-, baliozkotze- eta kontrol-jarduera guztiak egitea, bai sektore pribatutik bai ingurumen-eskumenak dituen sailetik formalki eskatutakoak, legez ezarritako epeen barruan.

c) Indarrean dagoen araudia, erreferentziazko agiriak eta ILEak jakinarazitako barne-prozedurak jarraituz jardutea.

d) Eska daitezkeen aktak, txostenak eta egiaztapenak legez ezarritako epeen barruan egitea, zehaztutako edukiarekin, formatuarekin eta euskarriarekin.

e) Erregistro-liburu bat eramatea, informazio hau duena:

1) Baliozkotze-jarduerak egiten dituzten langile teknikoek zerrenda eguneratua, eta banakako prestakuntzaren adostasuna jarduera-eremuekiko.

2) ILE gisa egindako jardueren zerrenda.

f) Kontroletako espedienteak, agiriak, aktak, egiaztapenak eta datuak gutxienez 5 urtez mantentzea.

g) Jardueren urteko txosten bat egitea eta ingurumen-eskumenak dituen sailari bidaltzea urtea amaitu eta hiru hilabeteko epean. Txosten hori gutxienez 5 urtez artxibatuta mantendu beharko da.

h) Ingurumen-eskumenak dituen administrazio publikoko langileei sartzeko instalazioetara, bulegoetara eta dekretu honen esparruan egindako jarduerekin erlazionaturako agiri guztietara.

i) ILEaren zerbitzuak ematen diren instalazioen edo jardueren independentzia, inpartzialtasuna eta osotasuna zaintzea, bai eta konfidentzialtasuna ere, eta bateraezintasunik balego atzera egitea.

#### 17. artikulua.– ILEaren baldintzak aldatzea.

1.– Erakundeek berehala eta modu frogagarrian jakinarazi beharko diote ingurumen-eskumenak dituen sailari datu orokorren (sozietate-izena, helbidea, telefono-zenbakia, e-maila, solaskidea, etab.) edo ILEaren Erregistroan aldaketaren bat suposatzen duen beste edozein informazio. Aldaketa horrek aldatu egingo du EAEko ILEen administrazio-erregistroko inskripzioa, ondorio guztiekin.

2.– Erregistroan dagoen ala ez dagoen kontuan hartu gabe, aipatutako aldaketak ILE gisa jarduteko beharrezko baldintzaren bat ez betetzea badakar, Dekretuaren esparruan egiten ariko litzatekeen jarduera oro eten beharko luke berehala, eta erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatu ahal zaizkio.

#### 18. artikulua.– Informazioa bidaltzea.

EAEko erregistroan izena emandako ILEek informazio hau bidali beharko diote, urtero, ingurumen-organoari:

1.– Dekretu honen 16.g) artikuluan adierazitako urteroko jarduera-txostena. Bertan joango dira bere jarduera-eremuarekin lotuta egindako jarduerak, kontrolatutako produktuen, tresnerien eta instalazioen zerrenda, eta jarduera berrien aurreikuspena.

2.– Langileak trebatzeko, kudeaketa hobetzeko eta erakundearen nahiz kanpoko jardueren antolakuntzako jardueren memoria zehatza, bai eta jardueren eraginkortasuna hobetzeko iradokizunak ere.

3.– Aurten erakundea utzi dutenen eta erakundera sartu direnen zerrenda eta Dekretu honetan araututako jardueretan ari diren langileen zerrenda, abenduaren 31n eguneratua eta zein jarduera-eremutarako prestatuta dauden azaltzen duena.

#### 19. artikulua.– Bateriaezintasunak.

1.– Beren zerbitzuak eska ditzaketen pertsona fisikoekiko edo juridikoekiko erabateko independentzia eta inpartzialtasuna ziurtatzeko eta beren jardueren emaitzetan eraginik ez izateko prozedurak ezarri beharko dituzte ILEek.

2.– Era berean, aurreko atalean aipatutakoa betetzen dela ziurtatzeko, I. mailako erakundeek justifikatu egin beharko dituzte A, B edo C motako ikuskatze-erakundeentzako UNE-EN ISO/IEC 17020 arauan finkatzen diren independentzia-, inpartzialtasun- eta osotasun-irizpideak edo arau baliokideak betetzen dituztela; erakundearen jardueran eragina duen presio komertzialik, finantzariorik edo bestelakorik ez dagoela bermatuko dute irizpide edo arau horiek.

### V. KAPITULUA

#### INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEEN KUDEAKETA

#### 20. artikulua.– Baliozkotze- eta kontrol-eskumenak.

1.– Ingurumena Baliozkotzeko eta Kontrolatzeko Erakundeei emandako eginkizunak EAEko ingurumen-eskumenak dituen sailak kontrola eta egiazta ditzake une oro. Hala ere, erakunde horiek beren irizpenen eta jardueren erantzule izango dira.

2.– Ingurumen-eskumenak dituen sailak beren jarduerako edozein unetan interkalibrazio-ariaketak, ikuskapenak edo ikustaldiak egin ahal dizkie erakunde horiei, bai eta dekretu honekin zerikusia duen jarduerari buruzko edozein informazio eta agiri emateko eskatu ere.

21. artikulua.– Ingurumen Lankidetzako Erakundeak etetea eta ezeztatzea.

1.– Ingurumen-eskumenak dituen sailak ILE baten jarduera eten dezake, baldin eta erakundearen funtzionamenduko baldintzak aldatzearen ondorioz ez badira betetzen dekretu honetako baldintzak.

2.– Kasu horretan, ingurumen-eskubideak dituen sailak ebazpen bidez etengo du jarduera, aurrez dagokion espedientea bideratuta eta ILEari entzunda. Ebazpen hori hiru hilabeteko epean emango eta jakinaraziko da; aipatutako epean ebazpenik ez egoteak prozedura iraungitzea dakar.

3.– Era berean, ILE baten jarduera eten edo ezezta daiteke, dekretu honetan ezarritakoaren aurkako jarduerak egiteagatik erakunde horri irekitako zehapen-espediente baten bidez horrela erabakitzen denean.

4.– Erakunde horien jarduera etetearen edo ezeztatzearen ebazpena EAEko ILEen administrazio erregistroan jasoko da, horrek dakartzan ondorioekin.

22. artikulua.– Zehapen-erregimena.

Zehapen-erregimena ezarrita dago EAEko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean.

23. artikulua.– Izapidetze telematikoa.

ILEek Dekretu honen 11. artikuluan araututako jakinarazpenak egingo dituzte, irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan araututako IKS eeM Ingurumen Informazioaren Kudeaketa Integraleko Sistemaren bidez, (183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena).

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– ILEak, beste administrazio publiko batzuen eskumen diren ingurumen-prozeduretan.

Udalak eta ingurumen-eskumenak dituzten beste administrazio batzuk dekretu honetan araututako ILEez balia daitezke beren jardueren baitan ingurumen-eragina duten jarduerak egiaztatzeko, baliozkotzeko eta kontrolatzeko.

Bigarrena.– Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko egiaztapena duten erakundeak.

Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duen, eta erakunde horiek lurzorua kalitateaz egindako ikerketen edukia eta nondik norakoa zehazten dituen urriaren 10eko 199/2006 Dekretuak (EHAA 213. zk., 2006ko azaroaren 8koa) araututako lurzorua kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko egiaztatutako erakundeak ofizios inskribatuko dira EAEko ILEen administrazio-erregistroan.

Erregistro horretan ofizios inskribatzeak ez du aldatzen erakunde horiek egiaztatzeko prozedura: lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuari jarraituz egingo da.

Hirugarrena.– Gaitasun teknikorako egiaztapena eta beste egiaztapenak onartzea.

Ingurumen-eskumenak dituen sailak Europar Batasuneko erakunde ofizialek emandako betetze-egiaztapenen edo -ziurtagirien baliozkotasuna onartuko du, beti ere erakunde horiek eskatutako baldintzak dekretu honetan ezarritakoen baliokideak badira.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Dekretu hau argitaratzen den egunean industria-eskumenak dituzten organoek, edo dagokion arroko erakundeek, dekretu honetan azaldutakoen antzeko eginkizunak egiteko baimena edo egiaztapena duten erakundeek egindako txostenak, irizpenak, analisiak eta beste jarduera batzuk baliozkoak izango dira EAEko ingurumen-eskumenak dituen sailarentzat, Dekretu hau indarrean jarri eta urtebeteko epean.

Erakunde horiek, aipatutako urtebete horretan, 12. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin beharko dute. Epe hori igaro eta jakinarazpenik egin ez bada, aipatutako erakundeek ezingo dute inolako jarduerarik egin dekretu honen esparruan.

Bigarrena.– Dekretu hau indarrean jarri eta 5 urteko epean, uren arloan 7. artikulutik eratorritako jardueraz arduratzeko saiakuntza-laborategiak dituzten saneamendu- eta arazketa-kudeaketako erakundeek egindako txostenak, irizpenak, analisiak eta beste jarduera batzuk baliozkoak izango dira ingurumen-eskumenak dituen sailarentzat.

Aipatutako epean, saneamendua eta arazketa kudeatzen duten erakunde horiek 12. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin beharko dute.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egin da irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, koipe erabiliak EAEn nola kudeatu behar diren arautzen duena. 2013ko uztailaren 1etik aurrera indargabetuko da.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Airea kutsa dezaketen jarduerak egiten diren instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua aldatzea.

1.– Airea kutsa dezaketen jarduerak egiten diren instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 3. artikuluko ILEaren definizioa aldatu egin da:

«Ingurumen Lankidetzako Erakundea (aurrerantzean ILE): definiturik dago 212/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, ILEak arautzen dituen eta EAEko ILEen Erregistroa sortzen duena».

2.– Airea kutsa dezaketen jarduerak egiten diren instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren «Ingurumena Kontrolatzeko Erakundea»ren aipamenak aldatu dira: «Ingurumen Lankidetzako Erakundeak».

Bigarrena.– Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aldatzea.

Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 6. artikulua aldatu da:

«6. artikulua.– Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta -materialak behar bezala kudeatu diren egiaztatzea.

Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu diren egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta -materialen sortzaileak. Txosten hori dekretu honen III. eranskineko ereduari jarraikiz egin behar da, eta ILE batek egiaztatu behar du, xedapen iragankor bakarria kontuan hartuz.

1.– EMAS sistemari (ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko Europako Erkidegoko sistemari) atxikitako erakundeen erregistroan erregistratuta dauden erakundeek ez dute egin beharko aurreko zenbakian adierazitako kanpo-egiaztapenik.

2.– Lurzoru kutsatuei buruzko araudian ezarritakoaren arabera lurzorua kutsa lezakeen jardueraren bat izan duen eraikin bat eraistea baldin badakar hondakinak sortzen dituen jarduerak, lurzoru kutsatuei buruzko araudian ezarritakoaren arabera, egiaztatutako erakundeek egin ahalko dute aurreko zenbakian adierazitako azken txostena.

Kasu horietan, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak azken txostenaren egokitasuna ebaluatzeko txosten bat emango dio lizentzia eskatu zaion udalari. Gehienez hilabeteko epean igorri behar da txosten hori, eta aldekoa dela joko da epe hori igarotakoan txostenik bidali ezean.

3.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Kutsatu gabeko ur eta arroak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen EAEko araudian ezarritakoari jarraiki.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu diren egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edota betelanetarako kutsatu gabeko lur eta arroak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispn-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko deklarazioa».

Hirugarrena.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren aldaketa.

1.– Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 10. artikuluko m) atala aldatu eta horrela idatzita geratuko da:

«m) Lurzoruaren kalitatea ikertzeko erakundeen egiaztapen-proposamenak izapidetzea eta egitea, bai eta EAEko ILEei dagokion erregistroan inskribatzea ere».

2.– Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 10. artikuluan r) atala gehituko da eta eduki hau izango du:

«r) ILEek beren jakinarazpen-eremuan egindako jarduera kontrolatzea eta egiaztatzea».

Laugarrena.– Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitateaz egindako ikerketen edukia eta nondik norakoa zehazten dituen urriaren 10eko 199/2006 Dekretua aldatzea.

1.– Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duen, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitateaz egindako ikerketen edukia eta nondik norakoa zehazten dituen urriaren 10eko 199/2006 Dekretuko 13. artikulua 3. paragrafoa aldatu eta honela idatzita geratuko da:

«3.– Egiaztapen-eskaria aurkezten denetik hiru hilabeteko epea izango da prozedura ebazteko. Aipatutako epean ebazpenik ez emateak egiaztapena onartzea ekarriko du, eta eskatzaileari

EAEko ILEen Erregistroan emango zaio izena. Kasu horretan, erakundeak egoera hori egiaztatuko duen ziurtagiri bat egitea eska dezake».

2.– Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duen, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitateaz egindako ikerketen edukia eta nondik norakoa zehazten dituen urriaren 10eko 199/2006. Dekretuko 14. artikulua aldatu eta honela idatzita geratuko da:

«14. artikulua.– EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

Ingurumen-organoak EAEko ILEen erregistroan inskribatuko ditu dekretu honetan araututako erakunde egiaztatuak, ILEak arautzen dituen eta EAEko ILEen erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretuaren arabera».

Bosgarrena.– Ingurumen-eskumenak dituen sailari dekretu hau garatzeko arauak onartzeko ahalmena ematen zaio; bai eta 7. artikuluan eta bere eranskinetan aurreikusitako prozedurak moldatzeko ere, beharrezkoa denean lege-xedapenen edo zientzia- edo teknologia-arloko aurrerapenen ondorioz.

Seigarrena.– Dekretu hau 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Dena dela, ILEek dekretu honen 12. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin ahal izango dute, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 16an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.



2012ko azaroaren 21a, asteazkena

I. ERANSKINA, URRIAREN 16KO 212/2012 DEKRETUARENA  
INGURUMEN-ZIURTAGIRIEN ETA GAITASUN TEKNIKOEN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	IL Earen gaitasun teknikoek baldintzak
<b>SUSTATZAILERAK ESKATURIK</b>		
1.– Ingurumen-baimen bateratua.		
1.1.– Ingurumen-baimen bateratuaren eskaeran egiaztatzea eta baliozkotzea instalazio berrien edo lehendik daudenen eskaeren agiriak, bai eta ingurumen-organoko funtsezko zat jotako aldateten agiriak ere, barne direlarik ingurumen-eraginaren deklarazioa behar dutenak.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoak edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak IPPC jardueren aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian.  edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
1.2.– Jarduera gauzatu bitartean, ingurumen-baimen bateratuan zehaztutako kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezeko edo osagarri diren arauak.
2.– Ingurumen-eraginaren ebaluazioa.		
2.1.– Proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioa. Ingurumen-eraginaren azterlana egiaztatzea eta baliozkotzea, hau da, ea egokitzen zaion ingurumen-organoko aurretiaz finkatutakoari, azterlanaren hedadura eta xehetasun-maila zehaztean.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoak edo zientifikoa duten langileak, eta 5 urteko esperientzia ingurumen-eraginaren azterlan- eta deklarazio-espedienteetan.  edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
2.2.– Ingurumen-eraginaren ebaluazio estrategikoa. Ingurumen-organo eskudunari bidali beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea, bereziki ingurumen-iraunkortasunaren txostena, bat etor dadin erreferentziazko agiriaren hedadurarekin eta xehetasun-mailarekin.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoak edo zientifikoa duten langileak, eta 5 urteko esperientzia planen eta programen ebaluazio-espedienteetan.  edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).

2012ko azaroaren 21a, asteazkena

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	II Earen gaitasun teknikoan baldintzak
3.– Hondakinak.		
3.1.– Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kudeatzeko baimen-araubidea.		
3.1.1.– Eskaeran, aurkeztu beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakin ahokularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.1.2.– Baimena berrizeko orduan, agiriak eta instalazioak egokiak diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakin ahokularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.1.3.– Abian jartzeko orduan, baimenean ezarritako neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakin ahokularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.1.4.– Jarduera gauzatu bitartean, baimenean ezarritako egiaztatpenak, baliozkotzeak edota kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordeko edo osagarri diren arauak.
3.2.– Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kudeatzeko jakinarazpen-araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakin ahokularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).

2012ko azaroaren 21a, asteazkena

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	IL Earen gaitasun teknikoaren baldintzak
3.3.– Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sorrerako jakinarazpen-araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakinaren aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.4.– Sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema indibidualen jakinarazpen-araubidean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakinaren aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.5.– Sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboak baimentzeko araubidea.		
3.5.1.– Eskaeran, aurkeztu beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakinaren aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.5.2.– Abian jartzeko orduan, baimenean ezarritako neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak hondakinaren aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian. edo Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).
3.5.3.– Jarduera gauzatu bitartean, baimenean ezarritako egiaztatpenak, baliozkotzeak edota kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkoko edo osagarri diren arauak.

2012ko azaroaren 21a, asteazkena

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	IL Earen gaitasun teknikoan baldintzak
4.- Airearen kutsadura.		
4.1.- Baimen-araubidea.		
Jarduerak iraun bitartean, baimenean adierazitako neurriak betetzen diren egiaztatzea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.
4.2.- Jakinarazpen-araubidea.		
Jakinarazpen-prozeduran, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.
5.- Urak.		
Jarduera egin bitartean, baimenetan ezarritako isurketa-baldintzak betetzen diren egiaztatzea: bereziki, isurketen ezaugarri kualitatiboak eta kuantitatiboak betetzearen ingurukoak.		
1) Ur zikina.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.
2) Ur kontinentalak.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.
3) Estuarioko eta itsasoko urak.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.
4) Jalkinak.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.
5) Biota.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.

2012ko azaroaren 21a, asteazkena

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	II.Earen gaitasun teknikoan baldintzak
<p>6.– Berotegi-gasen isurketa.</p> <p>Berotegi-gasen isurketak baimentzeko eta baimendutako isurketetan aldaketak egiteko eskaeretan, ingurumen eskumenak dituen Sailean aurkeztutakoetan, kasu haueetan:</p> <p>1) Sartu berria izatea.</p> <p>2) Gaitasuna nabarmen murriztea.</p>	I	<p>Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak berotegi-gasen isurketaren aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian.</p> <p>edo</p> <p>Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).</p>
7.– EBren etiketa ekologikoa.		
Etiketa ekologikoaren eskaeran, produktu-kategoria bakoitzaren ekologia-irizpideak betetzen diren egiaztatzea.	I	Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 66/2010 (EE) Araudia, 2009ko azaroaren 25ekoa, EBren etiketa ekologikoari buruzkoa.
8.– Zarata.		
Jarduera-proiektuetan eskatutako kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiria, edo haren ordezkio edo osagarri den araua.
INGURUMEN-ORGANO ESKUDUNAK ESKATURIK		
1.– Zarata.		
Jarduera-proiektuetan eskatutako kontrolak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17025 ziurtagiria, edo haren ordezkio edo osagarri den araua.
2.– Ingurumen-ikuskaritza.		
a) Hainbat jarduera-sektoretan diagnosiak egitea edota araudia betetzen den egiaztatzea.	I	<p>Unibertsitateko titulu teknikoa edo zientifikoa duten langileak, 5 urteko esperientzia dutenak jardueren ingurumen-aholkularitza, -ikuskaritza edo -auditorian.</p> <p>edo</p> <p>Balorazio-lanak egiten dituzten langileen barne-prestakuntzarako prozeduraren arabera prestatutako langileak (II. eranskina).</p>
b) Aire, ura, hondakinak, lurzorua edota zarataren kontrolak egitea. c) Administrazio hidraulikoari lagunduz, ingurune hartzailearentzat ingurumen-kalitatearen helburuak eta arauak betetzen diren egiaztatzea, eta uren egoeraren inguruko jarraipen-programak egitea.	II	UNE-EN ISO/IEC 17020, UNE-EN ISO/IEC ISO/IEC 17025 ziurtagiriak, edo haien ordezkio edo osagarri diren arauak.

2012ko azaroaren 21a, asteazkena

II. ERANSKINA, URRIAREN 16KO 212/2012 DEKRETUARENA  
BALORAZIO-LANAK EGITEN DITUZTEN LANGILEEN BARNE-PRESTAKUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEko langileen barne-prestakuntzarako baldintza orokorrak.
<b>SUSTATZAILEAK ESKATURIK</b>		
1.- Ingurumen-baimen bateratua.		
Ingurumen-baimen bateratuaren eskaeran egiaztatzea eta baliozkotzea instalazio berrien edo lehendik daudenen eskaeren agiriak, bai eta ingurumen-organok funtsezkotzat jotako aldaketan agiriak ere, barne direlarik ingurumen-eraginaren deklarazioa behar dutenak.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia IPPC instalazioen aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
2.- Ingurumen-eraginaren ebaluazioa.		
2.1.- Proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioa.		
Ingurumen-eraginaren azterlana egiaztatzea eta baliozkotzea: bereziki, ea egokitzen zaion ingurumen-organok aurretiaz finkatutakoari, azterlanaren hedadura eta xehetasun-maila zehaztean.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia ingurumen-eragina aztertzeke eta deklaratzeko espedienteetan. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
2.2.- Ingurumen-eraginaren ebaluazio estrategikoa.		
Ingurumen-organo eskudunari bidali beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea; bereziki, ingurumen-iraunkortasunaren txostena, bat etor dadin erreferentziatzko agiriaren hedadurarekin eta xehetasun-mailarekin.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia planak eta programak ebaluatzeko espedienteetan. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.- Hondakinak.		
3.1.- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kudeatzeko baimen-arabidea		
3.1.1.- Eskaeran, aurkeztu beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakin aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.

2012ko azaroaren 21a, asteazkena

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEko langileen barne-prestakuntzarako baldintza orokorrak.
3.1.2.- Baimena berritzeo orduan, agiriak eta instalazioak egokiak diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.1.3.- Abian jartzeko orduan, baimenean ezarritako neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.2.- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kudeatzeko jakinarazpen-arabidea.		
Jardueraren araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.3.- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak sortzea.		
Jakinarazpenak iraun artean, araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.4.- Sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema indibidualak.		
Jardueraren araudiko neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.5.- Sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboak.		
3.5.1.- Eskaeran, aurkeztu beharreko agiriak egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.
3.5.2.- Abian jartzeko orduan, baimenean ezarritako neurriak betetzen diren egiaztatzea eta baliozkotzea.	I	Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa. 2 urteko esperientzia hondakinen aholkularitzan, ikuskaritzan edo auditorian. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.



2012ko azaroaren 21a, asteazkena

Prozedura eta jarduera-eremua	Jarduera-maila	ILEko langileen barne-prestakuntzarako baldintza orokorrak.
<p>6.– Berotegi-gasen isurketa.</p> <p>Berotegi-gasen isurketak baimentzeko eta baimendutako isurketetan aldaketak egiteko eskaeretan, ingurumen-eskumenak dituen Sailean aurkeztutakoetan, kasu hauetan:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Sartu berria izatea.</li> <li>2) Gaitasuna nabarmen murriztea.</li> </ol>	I	<p>Unibertsitateko titulazio tekniko edo zientifikoa.</p> <p>2 urteko esperientzia berotegi-gasen aholkularitza, ikuskaritza edo auditorian.</p> <p>3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile izana.</p>
7.– EBren etiketa ekologikoa.		
Etiketa ekologikoaren eskaeran, produktu-kategoria bakoitzaren ekologia-irizpideak betetzen diren egiaztatzea.	I	Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 66/2010 (EE) Araudia, 2009ko azaroaren 25ekoa, EBren etiketa ekologikoari buruzkoa.
INGURUMEN-ORGANO ESKUDUNAK ESKATURIK		
1.– Ingurumen-ikuskaritza.		
Hainbat jarduera-sektoretan diagnosiak egitea edota araudia betetzen den egiaztatzea.	I	<p>Unibertsitateko titulazio tekniko edo zientifikoa.</p> <p>2 urteko esperientzia jardueren ingurumen-aholkularitza, -ikuskaritza edo -auditorian.</p> <p>Neurtu nahi denaren antzeko 3 ingurumen-egiaztapenetan lagundu izana.</p>